

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

Gobernantza Zuzendaritzaren uztailaren 16ko 3667/2026 Ebazpena, Arabako Foru Aldundiko sailek zenbait elkarte eta erakunderekin izenpetutako lankidetza hitzarmenen laburpenak argitaratzeko agintzen duena

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzura zenbait lankidetza hitzarmenen kopiak helarazi dira, Arabako Foru Aldundiko hainbat sailek behar bezala izenpetuta.

Kontuan hartu da horretarako zer xedatzen duten Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 47. artikuluan eta hurrengoetan, Arabako Foru Aldundiaren Gobernuari, Antolaketari eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak 51. artikuluan gai horri buruz eta Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 11ko 129/1993, urriaren 29ko 95/1996 eta maiatzaren 27ko 53/1997 foru dekretuek.

Kontuan hartuta lehen aipatutako lege manuak eta aplikatu beharreko gainerakoak, eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernuari, Antolaketari eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 65. artikuluan eta Diputatuen Kontseiluaren urriaren 29ko 95/1996 Foru Dekretuaren hirugarren apartatuaren arabera dagozkidan eskumenak baliatuz, hau

EBAZTEN DUT

Agintzea ALHAOn argitaratu daitezela lankidetza hitzarmen hauek:

IZENPETZE EGUNA: 2026ko urtarrilaren 30a

Izenpetu duten organoak:

- Alde batetik: Gorka Urtaran Agirre, Gizarte Politiken Saileko foru diputatu eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.
- Bestetik: Francisco Javier Larrañaga Aretxederra, Patronatuko kide eta Gizarte Laguntzako Obarburu Fundazioko ahalduna.

Hitzarmenaren xedea: familia egoera egokirik ez duten haurrak zaintzeko Hazaldi harrera eta larrialdietarako zentroa kudeatzeko 2026ko urtarrilaren 30ean sinatutako lankidetza hitzarmena.

Finantzaketa: 935.740,53 euro.

Indarraldia: 2026ko ekainaren 30era arte.

Luzapena: ez dago aurreikusita.

IZENPETZE EGUNA: 2026ko otsailaren 2a

Izenpetu duten organoak:

— Alde batetik: Gorka Urtaran Agirre, Gizarte Politiken Saileko foru diputatu eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

— Bestetik: María Emma Muro Ruiz de Osma, Vicente Abreu Federazioko presidentea.

Hitzarmenaren xedea: gizarte zerbitzuen arloan lan egiten duten eta jardun eremua Arabako Lurralde Historiko osoa duten elkarten sozietate egoitza moduan erabiltzen diren lokalen funtzionamendurako 2026ko otsailaren 2an sinatutako lankidetza hitzarmena.

Finantzaketa: 80.957,00 euro.

Indarraldia: 2026ko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: ez dago aurreikusita.

IZENPETZE EGUNA: 2026ko martxoaren 5a

Izenpetu duten organoak:

— Alde batetik: Gorka Urtaran Agirre, Gizarte Politiken Saileko foru diputatu eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

— Bestetik: Jesús Cantero Martínez, Espainiako Gurutze Gorriaren Arabako Batzarraren lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Landa eta tokiko gizarte jarduerak koordinatzea, 2026ko martxoaren 5ean sinatua.

2026ko finantzaketa: 53.863,00 euro.

Indarraldia: 2026ko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: ez dago aurreikusita.

IZENPETZE EGUNA: 2026ko martxoaren 5a

Izenpetu duten organoak:

— Alde batetik: Gorka Urtaran Agirre, Gizarte Politiken Saileko foru diputatu eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

— Bestetik: Jaime Tapia Parreño, Vitoria-Gasteizko Elizbarrutiko Caritasen zuzendaria.

Hitzarmenaren xedea: gizarte inklusioko programa bat gauzatzeko lankidetza hitzarmena, 2026ko martxoaren 5ean izenpetua.

2026ko finantzaketa: 234.373,00 euro.

Indarraldia: 2026ko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: ez dago aurreikusita.

IZENPETZE EGUNA: 2026ko martxoaren 24a

Izenpetu duten organoak:

- Alde batetik: Gorka Urtaran Agirre, Gizarte Politiken Saileko foru diputatu eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.
- Bestetik: Elena Ortiz de Zárate Grisaleña, ASAFES Gaixotasun mentala duten Pertsonen eta Senideen Arabako Elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: gaixotasun mentalen bat duten pertsonen lagundutako laneratzeko programa (PILA) egiteko lankidetzaz hitzarmena, 2026ko martxoaren 24an sinatua.

2026ko finantzaketa: 74.672,95 euro.

Indarraldia: 2026ko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: ez dago aurreikusita.

IZENPETZE EGUNA: 2026ko martxoaren 24a

Izenpetu duten organoak:

- Alde batetik: Gorka Urtaran Agirre, Gizarte Politiken Saileko foru diputatu eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.
- Bestetik: Elena Ortiz de Zárate Grisaleña, ASAFES Buru Osasun Arazoak dituzten Pertsonen eta Senideen Arabako Elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: gaixotasun mentala duten pertsonentzako, haien familientzako eta, oro har, gizartearentzako gizartean parte hartzea sustatzeko programa eta jarduerari eusteko lankidetzaz hitzarmena, 2026ko martxoaren 24an izenpetua.

2026ko finantzaketa: 65.275,00 euro.

Indarraldia: 2026ko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: ez dago aurreikusita.

IZENPETZE EGUNA: 2026ko maiatzaren 28a

Izenpetu duten organoak:

- Alde batetik: Gorka Urtaran Agirre, Gizarte Politiken Saileko foru diputatu eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.
- Bestetik: Francisco Javier Larrañaga Aretxederra, Patronatuko kide eta Gizarte Laguntzako Obarburu Fundazioko ahalduna.

Hitzarmenaren xedea: aldatzea bakarrik dauden adingabe atzerriarrentzako egoitza bidezko harrera programa bat kudeatzeko lankidetzaz hitzarmena. 2026ko maiatzaren 28an izenpetua.

2025eko finantzaketa: 5.464.627,04 euro.

2026ko finantzaketa: 6.357.431,46 euro.

Indarraldia: 2026ko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: ez dago aurreikusita.

IZENPETZE EGUNA: 2026ko ekainaren 18a

Izenpetu duten organoak:

— Alde batetik: Cristina González Calvar, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua.

— Bestetik: Álvaro Retortillo Osuna eta José Luis Vélez Unquera, biak Ondare Historikoaren Santa María la Real fundazioaren izenean eta hura ordezkatzuz.

Hitzarmenaren xedea: bi erakundeen arteko lankidetzaren oinarriak ezartzea, Araban enplegua sustatzearekin lotutako ekintzak ezartzeari dagokionez.

Alderdien ekarpenak eta konpromisoak: planteatutako ekimenak ezartzeko finantzaketa, 110.450,00 euro guztira, Arabako Foru Aldundiaren 2026ko eta 2027ko ekitaldietarako gastuen aurrekontuaren kargura.

Indarraldia: sinatzen denetik harik eta proiektua bukatu, ebaluazioa egin eta azken txostenak entregatu arte.

Luzapena: ez dago aurreikusita.

IZENPETZE EGUNA: 2026ko uztailaren 3a

Izenpetu duten organoak:

— Alde batetik: Cristina González Calvar, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua.

— Bestetik: Gregorio Rojo García, Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialeko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Arabako Foru Aldundiaren (Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saila) eta Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren lankidetzaren arautuko duten baldintzak ezartzea, erakunde bakoitzari modu osagarrian dagozkion eta erakunde bakoitzaren xedeak lortzera bideratuta dauden jarduerak optimizatzeko.

Alderdien ekarpenak eta konpromisoak: Arabako Foru Aldundiak Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialari 22.550,00 euroko dirulaguntza ematea Arabako Merkataritza Eskola programarako, Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldirako gastu aurrekontuaren kontura.

Indarraldia: izenpetu ondorengo egunetik aurrera eta izenpetzen den urtean zehar.

Luzapena: ez dago aurreikusita.

IZENPETZE EGUNA: 2026ko uztailaren 3a

Izenpetu duten organoak:

— Alde batetik: Cristina González Calvar, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua.

— Bestetik: Gregorio Rojo García, Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialeko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Arabako Foru Aldundiaren (Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saila) eta Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren lankidetzaren arautuko duten baldintzak ezartzea, erakunde bakoitzari modu osagarrian dagozkion eta erakunde bakoitzaren xedeak lortzera bideratuta dauden jarduerak optimizatzeko.

Alderdien ekarpenak eta konpromisoak: Arabako Foru Aldundiak Arabako Merkataritza eta Industria Ganberari 46.125,00 euroko dirulaguntza ematea alerta goiztiarraren programarako, 20.039,00 euro zerbitzuen sektoreko txanda programarako eta 5.125,00 euro Visual Sariak programarako, Arabako Foru Aldundiaren 2026eko gastu aurrekontuaren kontura.

Indarraldia: izenpetu ondorengo egunetik aurrera eta izenpetzen den urtean zehar.

Luzapena: ez dago aurreikusita.

IZENPETZE EGUNA: 2026ko uztailaren 8a

Izenpetu duten organoak:

— Alde batetik: Cristina González Calvar, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua.

— Bestetik: Iñaki Vivanco Ibañez jauna, APILL Laudioko Merkataria eta Industrialari Txikien Elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailaren eta APILL Laudioko Merkataria eta Industrialari Txikien Elkartearen arteko harremanak formalizatzea, bakoitzari modu osagarrian dagozkion eta bakoitzaren helburuak lortzera bideratuta dauden ekintzak optimizatzeko.

Alderdien ekarpenak eta konpromisoak: Arabako Foru Aldundiaren aldetik, APILL - Laudioko Merkataria eta Industrialari Txikien Elkarteari 37.710,00 euroko dirulaguntza ematea Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldirako gastu aurrekontuaren kontura.

Indarraldia: sinatu ondorengo egunetik aurrera eta sinatzen den urtean zehar.

Luzapena: ez dago aurreikusita.

IZENPETZE EGUNA: 2026ko uztailaren 10a

Izenpetu duten organoak:

— Alde batetik: Cristina González Calvar, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua.

— Bestetik: Iñaki Armentia Basterra, IKASLAN ARABA – Arabako Lanbide Heziketako Ikastetxe Publikoen Elkarteko presidentea.

Hitzarmenaren xedea: Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren eta Ikaslan Araba Elkartearen arteko harremanak formalizatzea, modu osagarrian egin ditzaten beren helburuak betetzeko dagozkien ekintzak.

Alderdien ekarpenak eta konpromisoak: Arabako Foru Aldundiaren aldetik, IKASLAN ARABARI 17.681,00 euroko dirulaguntza ematea Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldirako gastu aurrekontuaren kontura.

Indarraldia: hitzarmena sinatzen den urtean.

Luzapena: ez dago aurreikusita.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 17a

Gobernantza Zuzendaria

MIREN ZABALA BASTERRECHEA